





## EUSKALERIKO

## BERIAK



## Esparza'tar Inoskenti, lapurak atxitzeko ainbeste lagundu zuan berebil-zalea tiroz il

Ugoldeak egindako kalteak arintzeko jai ederra Altza'n. Inaki done unerako jai ederra ari dira antolatzen donostiar abertzaleak. Antzoki ta jolas-etxetako langileakj oporrean. Marcelino Domingo ministroak dionez Estatutua nai badegu laikoia barko du izan

### ERAILKETA LOTSAGARRIA

Donosti'ko Igeldo-bidean gertatu da inguru ontar: aspaldia ikusi etzar bezelako gertaera beltza. Ger taera beltza. Gizona il dute izan ditek latsagarriarean.

Orain dala amabosten bat egun edo eman gennu: iru lapur-gaiz-killeri Pasai Antxon egin nai zutei: lapurretak nola ta zergatik uts eman zien. Donosti'n lapurretak orretarako artu nai izan zuten automobilaren jabe ta txoperrak salatu zitun. Salaketa orri eskerrak, txilelak irten eta atxitu zituten asmo txarretako gizonak.

Lapurak salatu zitun txoperra Esparza'tar Inozentzio izan zai. Eta orain Igeldo-bidean il dutena ere Inozentzio bera da. Len gaiz-killereak salatu zitulako, mengantzaz beste gaizkillereak orain bera il. Larunbatean, atzo zortzi zai.

Arratseko amarretatik laxter bi gizon joan zitzaizkion Esparza'tar Igeldo-bideko etxe batera automobillean eramateko esaraz. Bere bizibidea orixe zanez, artarako egon eta artu ta eraman zitun. Esandako etxera iritxi ziraiean atea jo zuten bafio etzieten barrangoak ideki. Ate-joka egotea alperrik zala ikusi zutenean osteratzen automobilera itzuli ziran eta antxe automobil-ondoa tiroz il da utzi zuten txoper gizarajoa.

Nortzuk izan diran erailleak? Lengo gaizkillere: lagunak noski. Oraindik ez ditute ordea atxitu.

Astelenean egin ziran gorputzajasozea ta eozketan jendetza ikaragarria bildu zan. Igandean eta astelen-goizean ere etziran irer: taximetro - automobilak. Astelenean berriz gorputza jaso zanear: tximis-gurdiak eta geldi egon ziran eta dendak ere itxiak atsekabea ta asafrea agertu bearrez.

Orain dala egun batzuk milla laurleko jasoa zan Espartza gizarajoa bere salaketaz egin zun lan onaren saritzat. Iruña'tik etorri berri-berria omen zan. Igeidora joan zanear: G. B. Espartza'tar Inozentzio gizarajoa.

### GAUR ZORTZI JOLASTOKIETAN

Urolde-kalteen ordaingarri zerbait biltzeko Altzako udalak erriko bazkunak lagun: zitula jayad'ak egin zitun igandez Jolastokieta zelai ederrean. Goizean, ostikoketa-partidua, pelota-partidua eskuz, lasterketa-sayoa, ollar-gudua ta aizkolariak. Arratsaldean beste pelota-partidua, futbol-partidua, aurrekua, makildantzariak, 224 ezpatadantzariak. Bederatzi ta erditan zan jaya. Eusko-jolasak atseginen; guztien gafetik ezpatadantzariak. Jendea poliki. Sarrerak ordainduta izan ziran.

### INAKI DEUN JAYAK

Donosti'ko abertzaleak asi dira Inaki deun egunerako jayak antolatzen. Lanak ez ditu izutzen eta ekin diote larari.

Mezak bat bafio geyago izango dira. Nagusian ordea, Euzko-Abespatzako abestuko du. Gipuzko-Ezpatadantzari-Batzak bere bizkar artu du Atotxa'n izango daz: jalal-

dia eratzeko ardura. Atotxa'n guzitara bi milla dantzari bafio geyago izango omen dira. Bazkari ederra ere izango da. Nun da nola ez jakin oraindik.

### EDERKI EGINA

Donosti'tik Errenderi bitartean dabillen tximist-gurdiaren jaube dan lagundiak kalte aundiak izan zitun ugoldean.

50.000 laurleko edo artzeko eskubidea izango omen zun, bafio, guztia beste kalte-lunen onerako uzten du. Gafiera 2.000. laurleko biali dizkio jauriari.

### ANTZOKI TA JOLAS-ETXEAK

Antzoki eta jolas-etxetako langile-jendea oporrean gelditua dago. Larunbatean egin zuten: U. G. T'koak lanera joan edo ez. Lanari uztea erabaki zuten. Orre-gatik ez da egun auetan ez antzerkirik ez zinerik izan. Pelota-lekuak ere zalaparta sortu zuten oporzaleak; partidu bat jokatu ta gero zan ori ta bestea batere jokatu gabe utzi bear izan zuten.

### MARCELINO DOMINGO MINISTROAREN ITZALDIA

Gaur zortzi itzaldia izan zun Irun'er Marcelino Domingo Nazkazaritza-ministroak. Sarrera ordaindu egin bear zan eta biltzen zara ugoldeak egin ditun kalteak berdintzeko.

Gerendlain jaunak aurkeztu zun itzaldia.

Orain Madrid'etik berak egiter ari diran erreboluzioa jendeak nai omen du. Ori garbi asko agertu omen zan: berak aginpidetan sartu aurretik izan ziran auteskurde-etan. Auteskunde-aurretik agertu omen: zituten berak beren asmo ta egitarauak; beraz jendeak ontzat emanak ditute beren asmo ta egitarau aiek. Oraindik egiteko asko omen dute.

Euekaldurak eta kaalandarrak bakarrik omen degu autonomia izateko eskubidea. Eskubide orren ofarriak aurretik dauden tokian berai eustea, ongi omer: dago. Bafio ez dan tokian sortzen sayatzea, lan txarra.

Autonomia orrek erlikio-gabea izai: barko du, laicoa. Orrela izatekotan itxaropena izan gantzake. Bestela batere ez.

### 6.000 LAURLEKO ERRUKI-ETXERAKO

Jauriari 6.000 laurleko eman dizkie azken-nai batek alaxe agintzen dulako. Azken-nai ori Arrese-tar Gregorirena da. Azken-raia betetzen ari diranak eramana zituten diruak bere tokira.

### APAIZ JAUNAK GIPUZKOA'RA

Gotzai jaunak apaiz jaun auek biali ditu Gipuzkoa'do.

Budayo'ra Portu'tar Florentzio; Idiazabal'era Pikasari'tar Karlos; Amezketa'ra Pedro Martinez Apallaniz; Ezkio'ra Begiristain-dar Joseba; Igeldo'ra Egileor'tar Andoni; Donosti'ko karmeldar le-kalmietara, Gorostartzu'tar Lukas. Zorionak guztioi.

### ETXEKOANDRE!

Txikoriya nai dezunean EL LEON markaduna eskatu onena bera da ta.

### ALBIZTUR

#### BERTSO BERRIYAK

Ezkio'ko gaiak egiak esanaz eta iritziak agertuaz:

(Jarraipena)

Mendi oetan balitz orain agertuko, ezaugarrien bat liguke utziko. Ikusleak lirake zintzoki biziko, eta guztioak, noski, giñake onduko.

«Engaña mundo» asko

dabiltz gaur ludia; urrutira joan gabe —gure inguruan—. Miraririkan ez ta... okerrak Anduan... gertatu dira loski an da inguruan.

Gezur kaltegarriaz bazterrak nastutzen... zote dabiltz norbaitzuk sirlismena gaitzen? ¡On onak zeratenak! asi ba pensatzen, premia badago ta okerrak zuzentzen.

Joanetorri oyetan Ezkio'n ta abar, ibili omen dira illunpear baldar. Batzuen gurasoak biotzak txit dar-dar... dauzkatela egin dute begi biaz negari!

Ama Birjiñak ez du kalterik ekartzen, batzik datorrenean: gaitu gu sendatzen. Sinistu leike Ezkio'n ez dala agertzen... ¡emakumeak, ekir! goiz-goiz etxeratzen! Jarraitzeko

### LUISTAR

#### AMASA

#### ASTEASU'KO ABERTZALE JAYAK

Guztiz ederrak eta bikaiñak izan du ziran Amasa'ko «Loato» mengoizaleak eratuta Asteasun egin: ziran abertzale jayak.

Goizetik izandu ziran elizkizun eta beste jayaren berri «Meñaka» idazle jatorrak emango digu noski. Arratsaldean gu iritxi giñanerako Asteasu'ko enparantzan jendetza auldia arkitzen zan. Gure dantzari eta poxpoliñak dantzatu ondoren, eman zitoten asiera itzaldia. Azkoiti'ko Urzelai andereñoa eta Dorostiar Miner, Zumalabe eta Irizar izlari bikaiñak euskera garbi eta apañean mintzatu ziran.

Ez dago esan bearrik guztiak ederki itz egin zutela: txaloa ugarri entzun zuten. Izlarien aurkezpena, guztiz elerki, Asteasu'ko Uzkudun gazteak egin zuan.

Euzko Abendarer: Ereserkia abestu eta Andoain, Irura eta Tolosa'ko ezpata-dantzariak dantzatu ziran.

Guztiz txalotuak izar du ziran.

### Soñeko ebakiltze irakastola

Amabost egunian erakusten du IZA'tar EUJENIAK mota guztietako jantziak txurik naiz kolorezkoak gizon, emakume eta aurrenak ebakitzen. «Sagardoal»-eraz Maistrak euskeraz itz egiten du San Martin kalea, 29. 4'gn. bizitza ezkerretara.—DONOSTIA

eta ondoren illuntzerarte erromeri jator bat egin zan. Galdos anayak, Kardenal eta beste, txistulari bazuek jo zuten soñua ugari eta gaitzerantzekoak etziran geldi egon.

Zorionak eta eskerrak Mendigoizale jatorrak Eratutako jai aberkiak ziradelako bikaiñak. Berdir: dizkiot zuentzako ere abertzale asteasuarrak. Lengo igandez zabaldutako Jel azia'ren indarrak. Aurki Asteasu'n emango ditu Aberri igali ederrak.

### AYERDI

#### ANDOAIN

#### SEGALARI NEURKETA ETXEBERRIETA'KO ZELAYAN

Uzta'ren 10'an bildu ziran erri onetan Kortajarena'tar Juan «Ondartza», Asteasu'koa; Abuluza'tar Zelestino, Aduna'koa; Ezana'tar Txomin, Sorabilla'koa, ta Galarditar Tomax, Andoain'gua ta erabaki zuten belar ebakiltze neurketa bat egitia Etxeberrietako ostiko zelaietan, il onen 23'an, araudi au dala.

1'gn.—Bakoitzak izango du laguntzalle bat berak nai duana.

2'gn.—Epailleak izango dira Jau regit'ar Juan ta Balerdi'tar Joxe.

3'gn.—Sariyak izango dira:

|             |              |
|-------------|--------------|
| Aurrenekoa  | 150 laurleko |
| Bigarrena   | 125 «        |
| Irugarrena  | 100 «        |
| Lauugarrena | 75 «         |

Egualdi txarra bada urrengo igan derako utziko da.

Neurketari asiera emango zayo amaiketan.

Zelaya zortzi zati egingo da. Bakoitzak bi zati ebaki biar ditu ta bi zatia aurrea ebakitzen dituanak irabaziko du lenengo sariya.

Bakoitzak ekarri lezake iru sega. Labak oso segalari yauak dira.

### PATXI

#### ARRONA

#### JAI AUNDIAK

Datorren asteazkenian, amandre Ala donearen jai degu. Bi egunetan, urtero bezela, Zestua'ko txistulari ialoak emen izango ditugu: Ana donearen egur-ean erriko dantzari txiki txalotuak beren dantza txorta politena erakutsiko digute. ¡Gaztetxu alai abek saiatzer: dira ongi asko, beren erakusle treberen mendeen!

Dultzaina ta «Gelaxo» izen auldiak ere baditugu: baita ere arratsaldian naiko parre egingo degu, «Zepal» eta «Uzta-bide» bertsolari jatorrei entzunaz... Orra, arratsarrak, jai ederrak gertu: pake ta alaitasunez guziok ongi dantzatu ta jolastu gaitezen. Eup!

### NI BAT

Kaxo gizon! ¡Bizi zera? Ongi etorri.—T.

#### ASTEKO BERRIAK

Endoya'ko Akain basarrian izan duten aurtxo, asteazkenian ugutatu zuten Miren Begonia euskal izena ipiniiaz. Orrelako euskal izenak ipintzia oso ederki dago ta zorionak.

Gariyak zeuden zelayak bostortu ditugu egoaldi bikaiñarekin.

Urola burnibidean langile dagon Odriozola'tar Bonipaxio'k duan bi-

garren aurtxo Maria Karmen izenakin larunbatian ugutzatu zuten.

Oliden aldeko bide berrian bi zatia egun gutxi barru egingo dituzte.

Geltokiarrak Karmengo Andra Mari goratu dute.

### ZIOLAR

Egutegirako agindu zeminan idazkiaren zai nago. ¡Bialiko al dirazu? T.

### ASTEASU

#### ABERTZALE JAI

Eztuan Asteasu'ko gaztediak nagikeri aundirik izan oia uzteko igandez goizean. Eta goiz jekita, le-lango gauza, zer egoaldi zegon ikustera. Bafian goiztar asko izan arren goiztarrenak txistulariak. Lendabizi kaleratu ziranak beiriztat berak ziran.

10'etan gure txadon nagusian jaupa ederreñetako izan zan, al-borrietako abeslariak eta bertakoak abestuaz. Inaki Deunarer: ereserkia erri guziak abestuaz eman zitzaion elizkizunari bukaera.

12'tan erreboteko partidu bikaina, Amasa'ko eta emengo jokariaren artean osatutako bi taldek. Ondoren oturuntza larogel bat bafian bazkaltzera batu giñanak. Gure mai inguruan: bazan alaitasuna, antxe bertan baizan Aizkoiti bertsolaria. Bertso ederrik abestu zigun. Bazkaltzer: ari giñan bitartean iritxi ziran Amasa'ko dantzari txiki eta poxpoliñak.

4'etan dantzari-txiki eta poxpoliñer: dantzaldia.

5'etan itzaldia. Uzkudun'dar Jeronimo erri ontako U. B. B. lendakari jaurak egin zuan itzlarien aurkezpena. Urzelai andereñoa, Miner, Zumalabe ta Irizar jaunak izan ziran: itzlariek. Ez nua ni aiek zer esan zuten emen jartzera. Lan auldi'koa litzake. Esango det ordea izlari guziak oso txalotuak izan zirala, eta berai entzutera ozte ikaragarria batu zala, eta gure enparantza oso bete arkitzen zala. Itzaldi ondoren ezpatadantzak eta euzko erromeri bikaina illunabar arte. Nere agurrik sutsuena Loato mendigoizale batzakoari, Jel azia lenengo aldiz uri ontari zabaltzen alegindu zeratelako; baita, gafiera, nai ditut izparririgi onen bitartez agurtu itzleri, eta itzaldia entzutera etorri ziran guztiyak.

#### AMASA'KO «ZUBI ONDO»RI

Zuk «El Dia» izparringi aberkoyarer: bidez emandako agurra artu det. Ni ere ezin, ba, zuri beste ainbat egin gabe gehitu. Salatu zera aurreko aste ortan egunik galdu gabe erri ontako jayarer: berri ematen. Zu ere euzko idazle jatorra zeran aldetik artzazu nere agurrik aundiena.

### MANAKA

R. Aranda

Ortz-sendagillea

Ibañekruz, 14, 2.º

(Salon Rialto'ko goyan)

EIBAR

### Andoain'go Etxebarieta'ko zelaietan

Uztaila'ren 23'an, goizeko amaiketan, SEGALARIEN TXAPELTZA JOKATUKO DA

### —O—

Jokalariak izango dira

Asteasu'ko KORTAJARRENA TA ABALUZA

eta Andoain'go TXOMIN EZAMA TA TOMAS GALARDI